

**URDAIBAI BIRD CENTER  
ERAZTUNKETA ZIENTIFIKOKO ESTAZIOA  
2009. URTEKO TXOSTENA**

**ESTACIÓN DE ANILLAMIENTO CIENTÍFICO  
URDAIBAI BIRD CENTER  
INFORME 2009**



**bird center**

URDAIBAI



ARANZADI zientzi elkartea . sociedad de ciencias . society of sciences

**URDAIBAI BIRD CENTER  
ERAZTUNKETA ZIENTIFIKOKO ESTAZIOA  
2009. URTEKO TXOSTENA**

**ESTACIÓN DE ANILLAMIENTO CIENTÍFICO  
URDAIBAI BIRD CENTER  
INFORME 2009**

**Egileak / Autores:** José M<sup>a</sup> Unamuno, Edorta Unamuno, Alberto Unamuno, Fernando Ruiz Moneo, Ainara Azkona

**Esker onak:** Aranzadi Zientzi Elkartekoa den Urdaibaiko Eraztunketa estaziotik eskerrak eman beharrean gaude lehenengo eta behin, Eusko Jaurlaritzako ingirugiro saileko Biodibertsitatearen zuzendaritzari, gure inguruko hegaztien ikerketa zientifiko honetan laguntzen jarraitzeagaitik.

Hala eta guztiz ere, Urdaibaiko eraztunketa estazioa aurrera eramateko ezinbestekoa izan da gure inguruko bolondresen ekimena, eraztunketa egunetan bisitatu gaituzten hainbat pertsona eta nola ez, adibidez larolimikola eta arrano arrantzaleari buruzko aholkua eman diguten ikerlariak laguntza Jose Manuel Sayago esaterako.

Honekin batera, gure eskerrik beroenak, Luis Betanzos eta Iker Mintegiri eman diguten laguntza itzelagaitik; baita ere Aitor Galarza, Asier Oar-Arteta, Isidro Rodriguez, Jose Luis Bardon, Miren Josu Omaetxebarria, Aitor Aldamiz-etxebarria, Naia Unamuno, Peru Barainka, Joserra Diez, Nerea Oar-Arteta, Bego Omaetxebarria, Nati Yarza, Koldo eta Olatz Betanzos, Alfredo Moreno eta nola ez Urretxindorra eta Montorre eskoletako Irakaslego eta ikaslego guztiari.

**Agradecimientos:** Desde la Estación de Anillamiento de Urdaibai perteneciente a la Sociedad de Ciencias Aranzadi, mostramos nuestro agradecimiento a la Dirección de Biodiversidad del Departamento de Medio Ambiente del Gobierno Vasco, por seguir colaborando con esta actividad científica dedicada al estudio y divulgación de las aves de nuestro entorno.

Pero la Estación de anillamiento de Urdaibai ha podido desarrollar su actividad gracias a la ayuda de un gran número de voluntarios de la zona, así como de otras personas que nos han visitado en distintas jornadas de anillamiento y el consejo dado por investigadores como José Manuel Sayago sobre el anillamiento de larolimicolos y Aguila pescadora. Especialmente vaya nuestro agradecimiento para la estimable ayuda de Luis Betanzos e Iker Mintegi, así como para Aitor Galarza, Asier Oar-Arteta, Isidro Rodriguez, Jose Luis Bardón, Miren Josu Omaetxebarria, Aitor Aldamiz-etxebarria, Naia Unamuno, Peru Barainka, Joserra Diez, Nerea Oar-Arteta, Bego Omaetxebarria, Nati Yarza, Koldo y Olatz Betanzos, Alfredo Moreno así como para los profesores y alumnos de las escuelas Urretxindorra y Montorre de Urdaibai.

# AURKIBIDEA INDICE

SARRERA INTRODUCCIÓN.....	4
IKERKETA-GUNEA: URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBA AREA DE ESTUDIO: RESERVA DE LA BIOSFERA DE URDAIBAI .....	6
METODOLOGIA METODOLOGÍA.....	9
EMAITZAK RESULTADOS.....	16
ERAZTUNKETA AKTIBITATEAK ACTIVIDADES DE ANILLAMIENTO.....	36
FORMAZIOA ETA DIBULGAZIOA FORMACIÓN Y DIVULGACIÓN.....	45
BIBLIOGRAFIA.....	50
..	

# SARRERA

# INTRODUCCIÓN

## SARRERA INTRODUCCION

Eraztunketa ikerketarako tresna zientifiko modura erabiltzen hasi zenetik, 100 urte igaro ostean, metodo hau hegaztien kontserbazio eta azterketarako tresna guztiz eragingarria dela frogatu da. Urte horietan guztietan bildu den informazioak gaur egun existitzen den faunaren datu base handienetarikoa eta osotuena sortu du, eta honekin batera, ornitologiak kontserbazioaren arloan jokatzeko duen betebeharrak garrantzitsuak finkatzeko lagundu du.

Hegaztien eraztunketa zientifikoaren hastapenak Iberiar Penintsulan 1949an eman ziren Aranzadi Zientzia elkartearen eskutik; honen ostean, 1957an “Sociedad Española de Ornitología” ere zeregin honetan hasi zen.

Gaur egun, Aranzadiko eraztunketa bulegoa, bai Euskal Herrian eta bai Penintsularen beste herrialdetan ikerketak burutzen dituzten eraztuntzaileekin batera, erreferente bihurtu da, migrazioan kantauriar kostaldea erabiltzen duten hegaztien kontrol eta jarraipenerako.


Desde que hace algo más de 100 años comenzó a utilizarse el anillamiento como una herramienta para la investigación, se ha podido comprobar que ésta es una herramienta sumamente eficaz para la conservación y el estudio de las aves. Toda la información que se ha reunido durante estos años ha creado una de las bases de datos más grandes y completas que existe sobre fauna y junto a esta, ha ayudado a establecer las prioridades que establece la ornitología para la conservación de las aves.

Los comienzos del anillamiento científico de aves en la Península Ibérica se dieron de la mano de la Sociedad de Ciencias Aranzadi en 1949; después de esto en 1957 comenzó su andadura la Sociedad Española de Ornitología.

Hoy en día, la Oficina de Anillamiento de Aranzadi, junto a anilladores que realizan sus investigaciones tanto en Euskal Herria, como en otras zonas de la Península Ibérica, se ha convertido en un referente para el control y seguimiento de las aves que usan la costa cantábrica durante la migración.

# **IKERKETA-GUNEA: URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBA**

## **ZONA DE INVESTIGACIÓN: RESERVA DE LA BIOSFERA DE URDAIBAI**



## IKERKETA-GUNEA: URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBA

### ZONA DE INVESTIGACIÓN: RESERVA DE LA BIOSFERA DE URDAIBAI

Urdaibaiko Biosfera Erreserba Bizkaiko kostaldean, Busturialdeko eskualdean, kokatuta dagoen eremua da. 220 km karratuko azalera du, gutxi gorabehera Bizkaiko lurraldearen 10%a, eta bere baitan 22 herri barne hartzen ditu.

Erreserbak hainbat habitat eta ekosistema desberdin biltzen ditu bere baitan; hala eta guztiz ere, lau dira nabarmendu daitezkeenak: itsasadarrak eta padurek osatzen dituzten ingurune hezeak, artadiak eratzen duen baso trinkoa, baserri munduak sortu eta mantendutako landazabal atlantiarra eta kostaldean zehar hedatzen den zerrenda litorala.

Faunari dagokionez, erreserba honek daukan baliorik handienetakoa bere hegazti-faunan datza, batez ere ingurune hezeetara lotuta dauden hegaztietan. Hori dela eta, hegaztiak itsasadarraren egoeraren bioindikatzailerik ezin hobekak dira.

2002. urtetik hasita, hegazti paseriforme eta zangaluzeen jarraipena egiteko eratzunketa estazio bat jarri genuen martxan inguru honetan; horrenbestez, 2009. urtean zehar ere eratzunketaren aktibitatea Urdaibaiko Biosfera erreserbako gune desberdinetan burutu dugu, batez ere Gautegiz Arteaga, Busturia eta Muxikako udalerrietan.

La Reserva de la Biosfera de Urdaibai es un espacio que está situado en la costa de Bizkaia, en la comarca de Busturialdea. Tiene una superficie de 220km<sup>2</sup>, lo que representa aproximadamente el 10% del Territorio de Bizkaia y comprende 22 municipios.

La reserva tiene numerosos hábitat y ecosistemas diferentes, aunque puede decirse que son cuatro los más destacables: las zonas húmedas compuestas por los estuarios y las marismas, el bosque mixto creado por el encinar cantábrico, la campiña atlántica creada y mantenida por el trabajo de los caseríos y la franja litoral que se expande por toda la costa.

En cuanto a fauna, uno de los mejores valores que tiene esta reserva es el de su avifauna, sobre todo, las aves que se encuentran relacionadas con zonas húmedas. Debido a esto, las aves son bioindicadores inigualables a la hora de determinar la situación de este estuario

En 2002 se puso en funcionamiento una estación de anillamiento para el seguimiento de aves paseriformes y limícolas. Y lo que se comenzó entonces, este año 2009 continúa, en la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, con su actividad de anillamiento científico siendo desarrollada, sobre todo, en los municipios de Gautegiz Arteaga, Busturia y Muxika..

Eraztunketa estazioak Urdaibaiko habitat desberdinetan kokatuta daude: goi-padura inguruan, Oruetako lezkadi eta Anbekoko polderreko larre hezeetan; artadi kantauriarrean, Atxarren; San Kristobal eta Oruetako paduran, zangaluzeen estazioak, eta, azkenik, Urretxindorra eskolan, hegaztientzako jantokian. Horrekin batera, habia-kutxetan txitoak eraztuntzeko programa eskualde osoan zehar sakabanatuta ditugun 60 habiatan burutzen dugu.

Las Estaciones de Anillamiento se han diseminado por los diferentes hábitats de Urdaibai, en zonas húmedas, el carrizal de Orueta de la zona alta de la marisma y el polder de Anbeko, en encinar cantábrico en Atxarre, estaciones de limícolas en las marismas de Orutea y por último, los comederos de aves de la ikastola Urretxindorra. Además de esto, se está llevando a cabo un programa de anillamiento de pollos en caja nido, en las 60 colocadas a lo largo de toda la reserva.



Esan beharra daukagu, 2009an Gautegiz Arteagako Oruetako paduretan egin diren ingurumen hobekuntza proiektuaren lanen ondorioz, gaurdaino izan dugun estazio nagusiak aldaketa ugari jasan dituela, eta urte hau berau moldatzen eta urtean zehar izan duen eboluzioa jarraitzen aritu izan garela, etorkizunean, esfortzu konstanteko estazio bat martxan jartzeko asmotan.

Hay que mencionar, que durante este año 2009 la marisma de Orueta de Gautegiz Arteaga se ha realizado un proyecto de mejoras ambientales, debido al cual la estación principal de esta zona ha sufrido un gran cambio y durante este año, se ha realizado un seguimiento de la evolución y acondicionamiento de la zona, con la intención de poner en funcionamiento una estación de esfuerzo constante.



**METODOLOGIA**

**METODOLOGÍA**

## METODOLOGIA

### METODOLOGÍA

Eraztunketa zientifikoa, hegaztien biologia eta mugimenduak ikasteko helburuarekin, harrapaketa-metodo desberdinen bitartez hartutako hegazti bakoitzari zenbaki eskusibo bat duen eraztun metaliko hankan jarriaz markatzean datzan ikerketa-metodoa da.

Eraztun horiek eskusiboak dira Eraztuntze Bulego bakoitzarentzat, eta horietan, elkarri darraizkion hainbat letra eta zenbaki daude grabatuta; hori dela eta, mundu guztian zehar eraztun baten erreferentzia berdina agertzea ezinezkoa litzateke. Gure kasuan, eraztunak Aranzadi Zientzia Elkarteko Eraztuntze Bulegotik hornitzen zaizkigu.



Esan beharra dago eraztunketaren aktibitateak burutzen duten pertsonen prestakuntza handia eskatzen duela. Kontuan hartzekoa da, baita ere, hegaztiak ez mintzeko harrapaketa eta maneiua behar den bezala ezagutzetik aparte, behar beharrezkoa dela gure eremua erabiltzen duten hegaztiak identifikatzen jakitea.

El anillamiento científico es una herramienta para el estudio de la biología y los movimientos de las aves. Este es un método de estudio en el que a cada ave capturada, a través de diferentes métodos de trampeo, se le coloca en la pata una anilla metálica con numeración exclusiva.

Estas anillas, son exclusivas de cada Oficina de Anillamiento y en ellas, aparecen gravadas letras y números, así como el nombre de la Oficina; por este motivo, sería imposible que en cualquier parte del mundo aparecieran dos anillas con la misma referencia. En nuestro caso, nos provee de anillas la Oficina de Anillamiento de la Sociedad de Ciencias Aranzadi.



Hay que subrayar que se solicita una gran preparación a las personas que quieren realizar actividades de anillamiento. También hay que tener en cuenta que es muy importante conocer los métodos de trampeo y de manejo de las aves que sean inocuas para ellas y que es vital saber identificar y clasificar debidamente las aves presentes en nuestra zona.

Duda izpirik gabe, eraztunketa zientifikoaren jardueran hegaziaren ongizatea beste edozein aspekturen gainetik dago; beraz, eraztuntzaileak hegazi bakoitzak egoera klimatiko desberdinen aurrean eta datu biltzekarako maneiatzeko orduan kalterik jasan ez dezan hartu beharreko babes-neurriak ezagutu eta onartu beharko ditu.



Hegazi bat eskuan eduki ahal izateak horien biologia eta migrazioaren aspektu ugariaren ezagutzarako datu oso garrantzitsuak biltzea ahalbideratzen du; izan ere, biometria (hegoa, mokoia edota tartsoaren luzera), fisiologia (ugalketa egoera, gantza, pisua, muskulua... ) eta baita ere euren egoera sanitarioari buruzko datuak biltzeko aukera ematen du.

Eraztuntzaile bakoitzak datu horiek guztiak eraztunketa-orrietan bildu eta Aranzadi zientzia elkarteko eraztunketa bulegora igortzen ditu, bertako datu-basean gordetzen direlarik.

Sin ningún género de duda hay que decir que en el anillamiento científico, el bienestar de las aves está por encima de cualquier otro aspecto; por lo tanto, hay que conocer y aplicar medidas de protección para que las aves trampeadas no sufran daño ante diferentes situaciones climáticas o a la hora de su manejo para tomar los datos biométricos.

El poder tener un ave en mano permite reunir un gran número de datos importantes para conocer numerosos aspectos de su biología y migración; permitiendo poder obtener gran información a cerca de la biometría (ala, pico o longitud de tarso), la fisiología (situación reproductora, grasa, peso, músculo...) y también datos referentes al estado sanitario de cada ave.



Todos estos datos son recogidos por los anilladores en hojas de anillamiento y enviados a la Oficina de Anillamiento de la Sociedad de Ciencias Aranzadi, donde son guardados en una base de datos general.

Horren guztiaren gaitetik; EURING izeneko erakundeak herrialde bakoitzaren informazioa bildu eta Europako herrialde guztietarako komuna den datu-bankua koordinatu eta kudeatzen du.

Egun, estamentu desberdinen arteko komunikazioa eta elkarlanaren irisgarritasuna errazten duten eta eraztuntzaile bakoitzak erabili ditzakeen hainbat programa daude denon esku.

Harrapaketa-metodo guztietatik, guk Urdaibain erabiltzen ditugunen artean ohikoena sare japoniarrarena da; izena hegazti txiki eta ertainak harrapatzeko Japonian erabili ohi zen metodotik datorkio. Sareak izatez nylon edo poliéster hari finez eginak, kolore ilunekoak eta neurri desberdinekoak izan daitezke, eta leku egokian jarriz gero, bertatik pasatzen diren hegaztiak harrapatzeko aukera ematen du. Teknika hau erabiltzeko, beharrezkoa da eraztundu nahi diren espezi-een biologia zehatz-mehatz ezagutzea, non eta nola jarri behar diren sareak, eta batez ere, garrantzitsuena, hegaztiak saretik nola atera behar diren inongo minik jasan ez dezaten.

Aurten, beste harrapaketa metodo bat ere erabili izan dugu puntualki, gure eremutik igarotzen diren arrano arrantzaleak harrapatzeko asmoz. Arranoak erabiltzen duen poste batean jartzen da tranpa, eta malguki baten bidez harrapatzen da inongo minik sorrarazi gabe; metodo honekin hainbat arrano harrapatu dira.

En un nivel superior de funcionamiento, está el EURING, que recoge la información de cada una de las Oficinas de Anillamiento y coordina y gestiona un banco de datos común para toda Europa.

Hoy en día, se han puesto en marcha numerosos programas para facilitar la comunicación y el alcance de la colaboración entre los diversos estamentos y para que los usen los anilladores.

De todos los métodos de trampeo, en Urdaibai el más utilizado es el de las redes japonesas; este método se denomina así, al ser uno que se solía utilizar en Japón para atrapar aves de pequeño y mediano tamaño. Las redes que se utilizan están hechas con hilos muy finos de nylon o poliéster, pueden ser de color oscuro y de diferentes tamaños, de forma, que puestas en los lugares adecuados permitan atrapar a las aves que pasan por ahí. Para utilizar esta técnica, es necesario conocer de forma detallada la biología de la especie que se quiere anillar, dónde y cómo hay que colocar las redes y sobre todo, lo más importante, cómo hay que sacar las aves de la red para no causarles ningún tipo de daño.

Este año, se ha utilizado otro método de captura, de forma puntual, con la intención de trampear las águilas pescadoras que pasaban por nuestra zona. Para poner la trampa se usan los posaderos de la Pescadora y mediante un resorte, que no le causa ningún tipo de molestia al ave, se captura éste Águila.

Eraztunketa-egun bakoitza datu-fitxa batean jasotzen da; bertan, data, ordutegia, lekua, egoera meteorologikoa, sare-luzera, itsasmaila eta interesekoak diren beste hainbat aldagai erregistratu ostean, ahal den heinean, hurrengoko datuak biltzen dira:

-Espeziearen izenaren kodea: izen generikoaren eta espezifikoren lehenengo hiru letrak biltzen dituen. (ad. *Erithacus rubecula* ERIRUB)

- Hegaziaren adina, EURINGek hitzartutako nazioarteko kodearen arabera.

-Hegaziaren sexua, ezagutu ahal denean.

-Hegoaren luzera maximoa, milimetrotan eta 0,1 mm-ko zehaztasunarekin.

-Zortzigarren luma primarioaren luzera, milimetrotan eta 0,1 mm-ko zehaztasunarekin.

-Pisua gramotan eta 0,1 gramoko zehaztasunarekin.

-Gantzaren metaketa: Otik 8ra arteko (Kaiser, 1993) eskalaren arabera.

-Bularreko muskulatura: Otik 3ra doan (Barlein, 1995) eskalaren arabera.

-Lumaldatzearen egoera, gorputzeko eta hegan egiteko lumen arteko higadura maila eta luzapena desberdinduz. (Barlein, 1995)

Cada jornada de anillamiento se recoge dentro de una ficha de datos, en ella después de registrar variables de interés como: fecha, lugar, horario, situación meteorológica, longitud de redes, marea y cualquier otra significativa; se tomarán los siguientes datos, en la medida de lo posible:

- Código del nombre de la especie, que se construye con las tres primeras letras del nombre genérico y específico de la especie. (P. ej. *Erithacus rubecula* ERIRUB)

- Edad del ave, según el código internacional propuesto por EURING.

- Sexo del ave, en caso de que se pueda conocer.

- Máxima elongación del ala, en milímetros y con una precisión de 0,1 mm.

- Longitud de la octava primaria, en milímetros y con una precisión de 0,1 mm.

-Peso en gramos y con una precisión de 0,1 gramos.

- Grasa, nivel de acumulación: según la escala de 0 a 8 (Kaiser, 1993).

- Musculatura pectoral: según la escala de 0 a 3 (Barlein, 1995).

- Situación de la muda, diferenciando la grado de desgaste y longitud de las plumas del cuerpo y de vuelo. (Barlein, 1995)

Horrekin batera; hainbat espezetan, osagarriak diren beste datu batzuk ere hartu dira:

- Tartsoaren luzera, milimetrotan eta 0,1 mm-ko zehaztasunarekin.

-Luma primario guztien eta barneragoko sekundarioaren neurria, milimetrotan eta 0,1 mm-ko zehaztasunarekin.

- Osagarriak izan daitezkeen bestelako informazioak; hala nola, kloakaren garapena, inkubazio-plaka, garezurraren osifikazio-maila, bizkarroien presentzia, edota hegaziaren egoera askatzen den momentuan. Horrez gain, garrantzizkoak edo interesgarriak izan daitezken aspektuen argazkiak ere ateratzen dira eraztunketa egun bakoitzean.



Eraztunketaren beste atal garrantzitsua eraztuna jarrita duen hegazti bat harrapatu edo errekupearena da, eta, hain zuzen ere, berau da hegazti bakoitzaren mugimendu eta biologia hobekien ezagutzeko giltza. Eraztuna duen hegaztia errekupeare gero, eraztundu den momentutik harrapaketaraino egindako bidaiaren ikusmira ezin hobea edukiko baitugu.

De igual forma, en muchas especies también se toman otros datos complementarios:

- Longitud de tarso, en milímetros y con una precisión de 0,1 mm.

- Medida de todas las plumas primarias y de las secundarias más interiores, en milímetros y con una precisión de 0,1 mm.


- Otro tipo de información que puede ser complementaria; por ejemplo, desarrollo de la cloaca, placa incubatriz, nivel de osificación craneal, presencia de parásitos o condición del ave cuando se libera. Además de esto, cada día de anillamiento también se sacan fotografías de aspectos que puedan ser importantes e interesantes.



Otra de las partes más importantes del anillamiento, es la recuperación o recaptura de las aves que llevan anillas, y ésta es una de las mejores formas de conocer más sobre los movimientos y la biología de las aves. Ya que al recuperar un ave anillada, tendremos una perspectiva inmejorable del viaje que ha realizado este ave desde que se le puso la anilla hasta que se le ha vuelto a coger.

Kontuan hartzekoa da, gainera, paseriforme txikietan, milaka hegazti eraztundu behar direla errekupeazio soil bat izateko. Beraz, begi bistan dago gure inguruko hainbat hegaztari buruz daukagun informazio eza gaintitzeko, beharrezkoa dela lan honetan etengabe aurrera egitea.

Además, también hay que tener en cuenta que en los pequeños paseriformes hay que anillar varios miles de aves para poder conseguir una sola recuperación. Por lo tanto, queda en evidencia que para superar la falta de información que hay sobre numerosas aves, es necesario continuar con este tipo de trabajo de forma exhaustiva.



Aranzadiko eraztutze bulegoak kanpoko eraztuna duten hegaztien berrezkurapenak

Aves con anilla extranjera recuperadas por la Oficina de Anillamiento de Aranzadi

# EMAITZAK

# RESULTADOS



## EMAITZAK RESULTADOS

Aurreko urteetan egin dugun antzera, 2009.ean ere martxan izan dugu Urdaibaiko Biosfera Erreserban hegazti paseriforme eta antzekoen migrazio, kumaldi eta negu-pasa ikertzeko eraztunketa zientifikoko estazioa.

Aurten 1.348 hegazti harrapatu ditugu Urdaibai Bird Center estazioan; horietatik, 1.275 eraztunketak izan dira eta 73 kontrolak. Hori guztia 53 eraztunketa egunetan eta bakoitzari dagokion orritan erregistratu dugu.

Aurten, gehitu egin da berriro ikertutako espezieen kopurua, zehatzago esanda, guretzat berriak diren 3 espezie eraztundu ditugu: Oilagorra (*Scolopax rusticola*), Arrano arrantzalea (*Pandion haliaetus*) eta Txinbo papargorritza (*Sylvia cantillans*), urte hauetan 99 espezie desberdin izan direlarik guztira. Urdaibaiko eraztunketa estaziotik kanpo eraztundutako 10 hegazti errekuferatu ditugu. Ingalaterra, Belgika eta Frantzia izan dira errekuferatutako hegazti horien jatorrietako batzuk. Beste alde batetik, guk eraztundutako 3 hegaztiren datuak errekuferatu dituzte Urdaibaitik kanpoko beste eraztun-jartzaile batzuek.

Azken 8 urteetako datuak batuz, guztira 18.213 hegazti harrapatu ditugu; horietatik, 15.813 eraztunketak izan dira eta 2.400 kontrolak.

De igual forma que se realizó en años anteriores, también en 2009 se ha puesto en funcionamiento la estación de anillamiento científico que investiga la migración, reproducción e invernada de aves paseriformes y similares en la Reserva de la Biosfera de Urdaibai.

Durante este año se han capturado 1.348 aves en la estación de Urdaibai Bird Center; de ellas 1.275 han sido anillamientos y 73 controles. Todo ello en 53 jornadas de anillamiento, siendo registrada cada una en las hojas correspondientes.

Este año se han vuelto a ampliar el número de especies investigadas, concretamente se han anillado tres especies nuevas (Becada (*Scolopax rusticola*), Águila Pescadora (*Pandion haliaetus*) y Curruca Carrasqueña (*Sylvia cantillans*)), lo que suma un total de 99 especies en todos estos años. Se han recuperado 10 aves procedentes de fuera de la estación de Urdaibai, siendo las procedencias de las aves recapturadas, entre otras, Inglaterra, Bélgica o Francia. Por otra parte, anilladores de fuera de Urdaibai han recuperado 3 aves anilladas aquí.

Sumando los datos de los últimos 8 años, en total se han capturado 18.213 aves; de las cuales, 15.813 han sido anillamientos y 2.400 controles.

Esan beharra daukagu aurtengo honetan ere oso interesgarri suertatu zaigula ehiztariak errekuperatzen dituzten eraztunak guri heldu izana, aukera ematen baitigute kontrolatzeko zailak egiten zaizkigun espezieen mugimenduak aztertzeko.

Urtean zeharreko eraztunketa ibilbidea ezagutzeko, aurtun aldagai garrantzitsu bat izan dugu beste urte batzuekin konparatzeko orduan. 2009an, gaurdaino Oruetan izan dugun eraztunketa estazioak aldaketa batzuk jasan ditu, paduraren hobekuntzara bideratutako lan batzuen ondorioz; beraz, aurtengo lana, estazio konkretu horretan, berorren jarraipenarena eta moldaketarena izan da; hori dela eta, leku konkretu horretan erabilitako dinamika oso desberdina izan denez, aurtengo datuak beste urte batzuetako datuekin alderatuz oso desberdinak gerta daitezke.

Es reseñable el hecho de que este año también los cazadores nos las han hecho llegar las anillas que obtienen, dándonos la oportunidad de estudiar los movimientos de especies que de otra forma son muy difíciles de controlar, lo que permite obtener datos muy interesantes.

Para conocer la trayectoria que se ha llevado a cabo este año, hay que mencionar un cambio muy significativo a la hora de compararlo con los años anteriores, y es que en 2009, la estación que se habían mantenido hasta ahora en Orueta, ha sufrido modificaciones debidas a unos trabajos de mejoras ambientales en la marisma. Por lo tanto, el trabajo en esta estación en concreto ha sido el seguimiento y adecuación de la misma durante este año; por lo que, como la dinámica de trabajo utilizada en este lugar en concreto ha sido muy diferente, al comparar los datos obtenidos durante este año con los anteriores, los resultados van a ser muy diferentes.



Urtea hasteko orduan, 2008an egin genuenaren antzera, Muxikako Urretxindorra Eskolan kokatuta dagoen hegaztien jantokian eraztunketa oso interesgarriak burutu genituen. Eraztunketa-egun hauetan, jantokietara hurbiltzen diren hegaztiak eraztundu izan dira, berorien artean, txorru arrunta (*Carduelis chloris*), txonta arrunta (*Fringilla coelebs*) eta kaskabeltza (*Parus major*), baina denen artean harrapatuena tarina (*Carduelis spinus*) izan da, aurten 266 ale eraztundu eta kontrolatu baititugu (beraien artean, kanpoko kontrolak eta guk aurreko urteetan eraztundutakoak harrapatu ditugu).

De igual forma que se hizo en 2008, al comienzo de año se realizó el anillamiento de aves en los comederos colocados en la Ikastola Urretxindorra de Muxika, de los que se obtuvieron datos muy interesantes. En estas jornadas de anillamiento, se anillaron las aves que se acercaron a los comederos, entre ellos, Verderón Común (*Carduelis chloris*), Pinzón Común (*Fringilla coelebs*), Carbonero Común (*Parus major*), siendo los Lúganos (*Carduelis spinus*) los más capturados, con 266 aves anilladas y controladas. Entre estos controles hay aves anilladas fuera y otras anilladas aquí en años anteriores.



Eraztunketa eguna Urretxindorran

Jornada de anillamiento en Urretxindorra

Udaberri hasieratik bukaera arte Oruetako padurako lezkadian ezkon-aurreko migrazioan datozen elaien eraztunketa burutzen da lo lekuetan; horrekin batera, gure zeregina eskualde guztian zehar jarrita dauzkagun habia-kutxetako txiten eraztuntzea izan da.

Maiatzean zehar ere Oruetako paduran migrazioan datozen hainbat limikolaren eraztunketa egiten da. Garai honetan, artadian zatak harrapatzeko egindako hainbat saiok oso datu interesgarriak eman dizkigute espezie honen biologia hobeto ezagutzeko.

Urteak jarraitu ahala, berriz ere lo-lekuetan, elai eta limikolen ezkon osteko migrazioaren jarraipena egiteko eraztunketa izango da gure jarduna. Aldi berean, Atxarreko artadian esfortzu konstanteko estazio bat sortzeko ekimena jarriko dugu martxan.

Aurreko urteetan egin dugunaren antzera, arrano arrantzalearen ezkon osteko migrazioaren jarraipena burutzen da, honetarako, Urdaiban geldialdi luzeenak egiten dituzten aleen harrapaketa saiakerak eginaz.

Azkenik, erreserban ematen den negu pasaren jarraipena egiteko helburuarekin, eraztunketa saio zehatzagoak eramaten ditugu aurrera, oilagorrarena esaterako.

Desde el inicio al final de la primavera, se realiza el anillamiento de Golondrinas en migración prenupcial en el dormidero localizado en el carrizal de la marisma de Orueta. Al mismo tiempo, entre las actividades realizadas está el anillamiento de los pollos de las cajas nidos colocadas por toda la comarca.

En mayo, también se realiza el anillamiento de limícolas que vienen de migración a la marisma de Orueta. En esta misma época, los reiterados intentos de trampeo de Chotacabras en el encinar, han provisto de datos muy interesantes para un mejor conocimiento de la biología de la especie.

Más adelante, se anillan golondrinas, de nuevo en dormidero, y limícolas para realizar el seguimiento de la migración postnupcial de ambos. De forma paralela, se pone en marcha el diseño y creación de una estación de esfuerzo constante en el Encinar de Atxarre.

Como en los últimos años se realiza el seguimiento de la migración postnupcial del Águila Pescadora en Urdaibai, con el intento de trampeo de las aves que realizan paradas más prolongadas en la Reserva.

Finalmente, se realizan otros anillamientos más específicos dentro de los proyectos de seguimiento de la invernada en Urdaibai, como por ejemplo, el anillamiento de Becada.

**ERAZTUNKETAK / ANILLAMIENTOS**  
**BALANTZEA / BALANCE: 2009**

**GUZTIRA / TOTAL 1.275**

**ESPEZIEAK / ESPECIES 36**

Amiamoko zuria	Cigüeña común	Ciconia ciconia	2
Arrano arrantzalea	Águila pescadora	Pandion haliaetus	1
Txirritxo handia	Chorlitejo grande	Charadrius hiaticula	3
Txirri arrunta	Correlimos común	Calidris alpina	15
Oilagorra	Chocha perdíz	Scolopax rusticola	1
Kuliska txikia	Andarríos chico	Actitis hypoleucos	6
Zata arrunta	Chotacabras gris	Caprimulgus europaeus	2
Uhalde-enara	Avión zapador	Riparia riparia	25
Enara arrunta	Golondrina común	Hirundo rustica	541
Larre-buztanikara	Lavandera boyera	Motacilla flava	4
Txepetxa	Chochín	Troglodytes troglodytes	1
Tuntún arrunta	Acentor común	Prunella modularis	1
Txantxangorria	Petirrojo	Erithacus rubecula	32
Papo-urdina	Pechiazul	Luscinia svecica	1
Buztangorri iluna	Colirrojo tizón	Phoenicurus ochruros	2
Zozo arrunta	Mirlo común	Turdus merula	2
Birigarro arrunta	Zorzal común	Turdus philomelos	3
Errekatxindorra	Cetia ruiseñor	Cettia cetti	8
Benarriz arrunta	Carricerín común	Acrocephalus schoenobaenus	30
Benarriz nabarra	Buscarla pintoja	Locustella naevia	1
Lezkari arrunta	Carricero común	Acrocephalus scirpaceus	35
Txinbo burubeltza	Curruca cabecinegra	Sylvia melanocephala	2
Txinbo kaskabeltza	Curruca capirotada	Sylvia atricapilla	8
Txinbo papargorritzta	Curruca carrasqueña	Sylvia cantillans	1
Txio arrunta	Mosquitero común	Phylloscopus collybita	15
Txio iberiarra	Mosquitero ibérico	Phylloscopus ibericus	1
Txio horia	Mosquitero musical	Phylloscopus trochilus	19
Erregetxo bekainzuria	Reyezuelo listado	Regulus ignicapilla	2
Euli-txori-beltza	Papamoscas cerrojillo	Ficedula hypoleuca	4
Buztanluzea	Mito	Aegithalos caudatus	16
Amilotx urdina	Herrerillo común	Parus caeruleus	80
Kaskabeltza	Carbonero común	Parus major	105
Etxe-txolarrea	Gorrión común	Passer domesticus	3
Txonta arrunta	Pinzón vulgar	Fringilla coelebs	14
Txorru arrunta	Verderón	Carduelis chloris	12
Tarina	Lugano	Carduelis spinus	277

ERAZTUNKETAK / ANILLAMIENTOS  
BALANTZEA / BALANCE: 2002-2009



TOTAL/GUZTIRA 15.808

ESPECIES/ESPEZIEAK 99

Lertxuntxo txikia	Garceta común	Egretta garzetta	1
Amiamoko zuria	Cigüeña común	Ciconia ciconia	33
Arrano arrantzalea	Águila pescadora	Pandion haliaetus	1
Gabiraia	Gavilán	Accipiter nisus	1
Uroilanda	Rascón	Rallus aquaticus	8
Txirritxo txikia	Chorlito chico	Charadrius dubius	2
Txirritxo handia	Chorlito grande	Charadrius hiaticula	42
Urre-txirri arrunta	Chorlito dorado	Pluvialis apricaria	1
Txirri grisa	Chorlito gris	Pluvialis squatarola	1
Txirri lodia	Correlimos gordo	Calidris canutus	3
Txirri kurlinta	Correlimos Zarapitín	Calidris ferruginea	9
Txirri arrunta	Correlimos común	Calidris alpina	309
Oilagorra	Chocha perdíz	Scolopax rusticola	1
Kuliska txikia	Andarrios chico	Actitis hypoleucos	21
Kuliska iluna	Andarrios grande	Tringa ochropus	3
Bernagorri arrunta	Archibebe común	Tringa totanus	4
Kuliska zuria	Archibebe claro	Tringa nebularia	4
Harri iraularia	Vuelvepedras	Arenaria interpres	4
Kuliska gorria	Aguja colipinta	Limosa lapponica	3
Istingor arrunta	Agachadiza común	Gallinago gallinago	7
Istingor txikia	Agachadiza chica	Lymnocyptes minimus	1
Usapal turkiarra	Tórtola turca	Streptopelia decaocto	6
Zata arrunta	Chotacabras gris	Caprimulgus europaeus	11
Mozolo arrunta	Mochuelo	Atene noctua	2
Apo-hontza	Autillo europeo	Otus scops	1
Sorbeltz arrunta	Vencejo común	Apus apus	1
Martín arrantzalea	Martín Pescador	Alcedo atthis	80
Okil berdea	Pito real	Picus viridis	3
Okil handia	Pico picapinos	Dendrocopos major	2
Okil txikia	Pico menor	Dendrocopos minor	5
Lepizulia	Torcecuellos	Jynx torquilla	7
Uhalde-enara	Avión Zapador	Riparia riparia	190
Enara arrunta	Golondrina común	Hirundo rustica	7068
Enara azpizuria	Avión común	Delichón urbica	7
Mendi txirta	Bisbita ribereño alpino	Anthus spinoletta	7
Negu-txirta	Bisbita común	Anthus pratensis	21
Uda txirta	Bisbita arboreo	Anthus tivilis	1
Buztanikara-zuria	Lavandera blanca	Motacilla alba	69
Larre-buztanikara	Lavandera boyera	Motacilla flava	54
Buztanikara horia	Lavandera cascadeña	Motacilla cinerea	3
Ur zozoa	Mirlo acuático	Cinclus cinclus	3
Txepetxa	Chochín	Troglodytes troglodytes	119
Tuntún arrunta	Acentor común	Prunella modularis	117
Txantxangorria	Petirrojo	Erithacus rubecula	526
Urretxindorra	Ruiseñor común	Luscinia megarhynchos	10
Papo-urdina	Pechiazul	Luscinia svecica	56
Buztangorri argia	Colirrojo real	Phoenicurus phoenicurus	4
Buztangorri iluna	Colirrojo tizón	Phoenicurus ochruros	7
Pitxartxar nabarra	Tarabilla norteña	Saxicola rubetra	15
Pitxartxar burubeltza	Tarabilla común	Saxicola torquatus	147
Zozo arrunta	Mirlo común	Turdus merula	293
Birigarro arrunta	Zorzal común	Turdus philomelos	54

*ERAZTUNKETAK / ANILLAMIENTOS*  
*BALANTZEA / BALANCE: 2002-2009*


TOTAL/GUZTIRA 15.808		ESPECIES/ESPEZIEAK 99	
Errekatxindorra	Cetia ruiseñor	Cettia cetti	260
Ihi-txoria	Cisticola buitron	Cisticola juncidis	180
Ur-benarriza	Carricerin cejudo	Acrocephalus paludicola	12
Benarriz arrunta	Carricerin comun	Acrocephalus schoenobaenus	374
Benarriz nabarra	Buscarla pintoja	Locustella naevia	11
Benarriz gorrizka	Buscarla unicolor	Locustella luscinioides	2
Lezkari arrunta	Carricero comun	Acrocephalus scirpaceus	1209
Lezkari karratxina	Carricero tordal	Acrocephalus arundinaceus	4
Sasi-txori arrunta	Zarcero poliglota	Hippolais polyglotta	121
Sasi-txinboa	Curruca zarcera	Sylvia communis	33
Etze-txinboa	Curruca rabilarga	Sylvia undata	2
Baso-txinboa	Curruca mosquitera	Sylvia borin	21
Txinbo burubeltza	Curruca cabecinegra	Sylvia melanocephala	15
Txinbo kaskabeltza	Curruca capirotada	Sylvia atricapilla	296
Txinbo papargorritzta	Curruca carrasqueña	Sylvia cantillans	1
Txio arrunta/iberiarra	Mosquitero comun/iberico	Phylloscopus collybita/ibericus	488
Txio horia	Mosquitero musical	Phylloscopus trochilus	287
Txio marrabikoa	Mosquitero bilistado	Phylloscopus inornatus	1
Mendi-erregetxo	Reyezuelo sencillo	Regulus regulus	1
Erregetxo bekainzuria	Reyezuelo listado	Regulus ignicapilla	81
Euli-txori grisa	Papamoscas gris	Muscicapa striata	3
Euli-txori-beltza	Papamoscas cerrojillo	Ficedula hypoleuca	43
Buztanluzea	Mito	Aegithalos caudatus	199
Pinu-kaskabeltza	Carbonero garrapinos	Parus ater	16
Amilotx urdina	Herrerillo comun	Parus caeruleus	378
Kaskabeltza	Carbonero comun	Parus major	539
Kaskabeltz txikia	Carbonero palustre	Parus palustris	20
Amilotx motoduna	Herrerillo capuchino	Parus cristatus	3
Dilindaria	Pajaro moscon	Remiz pendulinus	4
Gerri-txori arrunta	Agateador comun	Certhia brachydactyla	7
Artzandobi arrunta	Alcaudon dorsirrojo	Lanius collurio	37
Mika	Urraca	Pica Pica	4
Eskinosoa	Arrendajo comun	Garrulus glandarius	8
Araba-zozo-pikarta	Estornino pinto	Sturnus vulgaris	1
Etxe-txolarrea	Gorrión comun	Passer domesticus	120
Landa-txolarrea	Gorrión molinero	Passer montanus	46
Txonta arrunta	Pinzón vulgar	Fringilla coelebs	358
Negu-txonta	Pinzón real	Fringilla montifringilla	9
Txirriskila arrunta	Verdecillo	Serinus serinus	91
Txorru arrunta	Verderón	Carduelis chloris	140
Karnaba	Jilguero	Carduelis carduelis	58
Tarina	Lúgano	Carduelis spinus	624
Gailupa	Camachuelo	Pyrrhula pyrrhula	10
Mokolodia	Picogordo	Coccothraustes Coccothraustes	1
Hesi-berdantza	Escribano soteño	Emberiza cirulus	27
Zingira-berdantza	Escribano palustre	Emberiza schoeniclus	315





## ESPECIES MÁS ANILLADAS EN 2009

### 2009.EAN GEHIEN ERAZTUNDU DIREN ESPEZIEAK



## BIDERATZEAR DAUDEN KANPOKO ERREKUPERAZIOAK

2009. urtean hainbat izan dira kanpoko eraztuntzaileek eraztundu eta gure estazioan kontrolatu ditugun hegaztiak; kasu hauetan, hegaztiaren datu guztiak Aranzadiko eraztunketa bulegora igortzen ditugu, eta beraiek dira hegaztiari buruzko historial guztiaren informazioa bideratzen digutenak. Ondoren aipatzen direnak bideratuta baina erantzunaren zain daude. Errekuperazioen artean, bai Europa eta bai Penintsulako beste estazio batzuetakoak izan ditugu.

## RECUPERACIONES EXTERNAS EN TRÁMITE

En 2009 han sido numerosas las aves anilladas fuera y controladas en nuestra estación; en estos casos, todos los datos del ave son enviados a la Oficina de Anillamiento de Aranzadi, siendo ellos los que nos envían toda la información del historia del ave. Entre las recuperaciones, se han obtenido datos tanto de Europa como de varias estaciones de la Península.

### 1.-Lezkari arrunta/ Carricero común/ Acrocephalus scirpaceus

Eraztuna: 10116537      MUS.SC.NAT  
1000 BRUSSELS

Anilla: 10116537      MUS.SC.NAT  
1000 BRUSSELS

Gauegiz Arteagako paduran, elaien etzalekuaren jarraipena egitearekin batera 2009ko maiatzaren 15ean errekerperatu genuen Belgikan eraztundutako hegazti hau.

En la marisma de Gauegiz Arteaga, durante el seguimiento del dormitorio de golondrinas, el 15 de mayo de 2009 se recupero este ave anillado en Bélgica.



2.- Benarriz arrunta/ Carricerín común/ Acrocephalus schoenobaenus

Eraztuna: 5291989  
MUSEUM PARIS

Anilla: 5291989  
MUSEUM PARIS

Kasu honetan ere, 2009ko apirilaren 15ean, Gautegiz Arteagako Oruetako lezkadian kontrolatu genuen.

En este caso, se controló el ave el 15 de abril de 2009 en el carrizal de Orueta en Gautegiz Arteaga.



3.- Tarina/ Lúgano/ Carduelis spinus

Eraztuna: 6H95427  
STAVANGER MUS. NORWAY

Anilla: 6H95427  
STAVANGER MUS. NORWAY

Norwegian eraztundutako tarin hau Muxikako Urretxindorra eskolako jantokian egindako eraztunketa egunean kontrolatu genuen 2009ko urtarrilaren 31n.

Este Lúgano anillado en Noruega fue controlado el 31 de enero de 2009 en una jornada de anillamiento en los comederos de la Ikastola Urretxindorra de Muxika.

4.- Enara arrunta/Golondrina común/ Hirundo rustica

Eraztuna: HC7383  
ICONA MADRID

Anilla: HC7383  
ICONA MADRID

Afrikatik bueltan zetorren enara hau, 2009ko apirilaren 15ean Gautegiz Arteagako padurako etzalekuan, harrapatu genuen, umatze lekura bueltan.

Esta Golondrina que volvía de África, fue capturada en su regreso a las zonas de cría, el 15 de abril de 2009 en el dormitorio de la marisma de Gautegiz Arteaga.

5.- Oilagorra/ Becada/ Scolopax rusticola

Eraztuna: GY95769  
OIS.MUSEUM PARIS

Anilla: GY95769  
OIS.MUSEUM PARIS

2009ko abenduaren 17an, gure inguruko ehiztari batek, Estatu Frantsesean eraztundutako oilagor bat ehizatu eta eraztuna bideratu zigun

El 17 de diciembre de 2009, un cazador de la zona cazó una becada anillada en el estado Francés y nos hizo llegar esta anilla.

6.- Tarina/ Lúgano/ Carduelis spinus

Eraztuna: X029101  
BRIT. MUSEUM LONDON S.W.7

Anilla: X029101 BRIT.  
MUSEUM LONDON S.W.7

Ingalaterran eraztundutako tarin hau ere, Muxikako eskolako jantokian kontrolatu zen negu pasaren aldian, zehazki, 2009ko otsailaren 2an.

Este Lúgano anillado en Inglaterra fue controlado en los comederos de la Ikastola de Muxika mientras invernaba en la zona, concretamente el 2 de febrero de 2009.

7.- Enara arrunta/Golondrina común/ Hirundo rustica

Eraztuna: Z22237 ARANZADI  
SAN SEBASTIAN

Anilla: Z22237  
ARANZADI SAN SEBASTIAN

Aurreko urtean, 2008.eko abuztuaren 21an Lasarteko etzagune batean eraztundutako elaia, Umatze guneetara bueltatzen ari zela Gautegiz Arteagako Oruetako lezkadian agertu zen 2009ko apirilaren 13an.

Una golondrina anillada en un dormitorio de Lasarte el año anterior, el 21 de agosto de 2008, fue capturada mientras volvía a sus zonas de cría, en el carrizal de Orueta en Gautegiz Arteaga, el 13 de abril de 2009.

## ERREKUPERATU DIZKIGUTEN HEGAZTIAK.

Atal honetan, gure estazioan guk eraztundu eta beste leku batzuetan errekuperatu dizkiguten hegaztien kasuak aurkeztuko ditugu, bai hemendik kanpo egindako beste eraztunketa kanpaina batzuetan harrapatutakoak eta bai beste edozein arrazoirengatik agertutakoak ere.



Eraztuna: F4621

Urdaibai fundazioak aurrera daraman proiektuetariko bat amiamoko zuria Urdaibaiko erreserban birsartzearena da. Kanpotik ekarritako amiamokoak ingurura ohitzeko eta moldatzeko denboraldi luze bat zaintzapean eduki ostean, askatu eta aurrerantzean berorien jarraipena egiteko helburuarekin eraztuntzen dira.

Kasu honetan, 2007ko martxoaren 5ean Foruan eraztundu eta askatutako amiamoko hau, bi urte igaro ostean, konkretuki 2009ko apirilaren 2an, Lemoan hilda aurkitu zuten. Hegazti honi autopsia egin zitzaion eta, emaitzen ondorioz, intoxikazio baten kausaz hil zela ondorioztatu zuten.

## AVES QUE NOS HAN RECUPERADO

En este apartado, se presentan las aves anilladas en nuestra estación y que han sido recuperadas en otras zonas, tanto las capturadas en campañas de anillamiento realizadas en otros lugares como las aparecidas por otras razones.

### 1.- Amiamoko zuria/Cigüeña común/ Ciconia ciconia

Anilla: F4621

La fundación Urdaibai uno de los proyectos que lleva a cabo es la reintroducción de la Cigüeña Blanca en la Reserva de Urdaibai. Después de tener a las cigüeñas traídas de fuera durante un tiempo cerradas para que se acostumbren y se aclimaten a la zona, se liberan pero para poder realizar un seguimiento a partir de ese momento, antes se anillan.


En este caso, la cigüeña anillada y liberada el 5 de marzo de 2007 en Forua, después de pasar 2 años, concretamente el 2 de abril de 2009 fue encontrada muerta en Lemoa. A este ave se le realizó la necropsia y se concluyó que murió a causa de una intoxicación.

## 2.- Enara arrunta/ Golondrina comun/ Hirundo rustica

Eraztuna: Z50114

Euring swallow programaren baitan 2009an egindako etzalekuetako eraztunketa saioetan eraztundu ditugun enaren artean, irailaren 7an eraztundutako enara gazte bat urte bereko irailaren 28an Aranzadiko beste eraztuntzaile batek, Gorka Belamendiak, Miranda de Ebro herrian, konkretuki “laguna de Bayas” eraztunketa estazioan kontrolatu zuen guk harrapatu eta 21 egun beranduago, Afrikarantz negu-pasa egiteko bidean zihoala.

Guretzat datu hau oso garrantzitsua da, beste urte batzuetako enaren berreskurapenak kontuan hartuz gero, datu honekin ere, kumaldi osteko migrazioan Urdaibaitik igarotzen diren enarek erabiltzen duten bidea zehatz-mehatz hegoaldera jarraituz burutzen dutela konfirmatzen digulako.



Anilla: Z50114

Entre las golondrinas anilladas en las jornadas realizadas en dormidero en 2009, dentro del Programa Swallow de Euring, una golondrina joven anillada el 7 de septiembre ha sido recuperada este mismo año por otro anillador de Aranzadi, Gorka Belamendia, en el pueblo de Miranda de Ebro, y concretamente en la estación de anillamiento de la “Laguna de Bayas”, 21 días después de ser anillada por nosotros, según iba de camino hacia África para pasar el invierno.

